

## HIZKUNTZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALAREN 15. URTEURRENA

### Behatokiaren 10. urteurrena

Kontseiluko bazkideak eta nazioarteko gonbidatuak

Martin Ugalde Kultur Parkea

2011ko ekainaren 9a

### **Arratsalde on, Bona tarda, Bonjour, Boa tarde, Good afternoon**

“**Euskarak egiten gaitu euskaldun**”, eta hori esanda ez dugu ezer berririk esaten, hitzak berak horixe esan nahi duelako. Agian beste modu batera ere esan genezake, gure amamak esaten zuen moduan: “**zer jan hura izan**”. Hizkuntza ez delako soilik adierazpide, komunikatzeko tresna edo lanabes. Hizkuntza jana da, elikagaia, eta diogunaren mamia ere bada; ezer esaten hasi aurretik erabakitzen dugunean zein hizkuntza erabiliko dugun, mezu bat ari gara igortzen dagoeneko. **Bona tarda, bonjour** edo **arrastion** esatea ez da formula kontua bakarrik. Konplizitate kontua da, identifikazioa, elkarrenganako hurbilketa, hizketarako jarrera bat. Hizkuntza berria da mezua.

Askatasuna dagoenean hizkuntza askea da. Eta alderantziz. Menpekotasun egoeretan, hizkuntza menpeko bihurtu nahi da, dominazioaren konstantea baita arerioa isilarazi nahi izatea. Hizkuntzarik gabe ez gara mutu; hizkuntzarik gabe, ez-gauza gara.

Nazioarteko PEN Kluba bi gerren arteko horrorean sortu zen, 1921ean, eta lehen unetik eduki zuen helburu eta oinarri elkarrenganako errespetua, arlo politikoan, erlijiosoan, ideologikoan eta linguistikoan ere bai. PEN zerbait baldin bada, dibertsitatearen sinboloa da: bost kontinenteetako 20.000 mila PENkide milaka hizkuntza ezberdinez mintzatzen dira, lengoia bakarra mintzatzeko bokazioaz: errespetuarena. Ez da kasualitatea, beraz, PENen eremuan sortzea orain 15 urte HIZKUNTZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA.

Orain 15 urteko ekainean 61 GKE, 41 PEN zentru eta 40 aditu batu zirenartzelotan Deklarazio hau onartzeko, PEN eta CIEMENen ekimenari esker, eta hilabete beranduago UNESCOri aurkeztu zioten, eta UNESCOk onartu egin zuen.

Lan honen guztiaren motorra izan zen PENeko batzordeetarikoriko bat, *Itzulpena eta Hizkuntza Eskubideen Batzordea (Translation and Linguistic Rights Committee)* eta ordutik hona batzorde honek ez dio utzi lan egiteari.

2004an Euskal PEN hirugarrenez sortu zenean (lehen aldia 1951ean izan zen) bi batzordetan hartu zuen parte hasiera-hasieratik: bata da *Idazle Kartzelaratuen Batzordea* eta, bestea, *Itzulpena eta Hizkuntza Eskubideen Batzordea*, hain zuzen ere bi ardura horiek eraginda sortu zelako Euskal PEN zentrua: batetik, kazetariak kartzelaratzen ari ziren kazetari jarduteagatik, non eta Europar Batasunaren estatu demokratiko batean; bestetik, euskara hutsezko egunkari bakarra akabatu egin zuten gau bakar batean.

Bi gertaera horiek izan ziren Euskal PEN sortzeko pizgarriak, akuiluak, baina azken 7 urte hauetan lan egiten segitze-



ko adorea eman diguna ez da izan amorru puntuala edo erreakzio hutsa. Segitzen dugu, eta segituko dugu, konbentziturik gaudelako hizkuntzen alde egitea, gizakiaren alde egitea dela; elkar ulertzerako ezinbesteko premisa dela solaskidea errespetatzea, eta errespetua hasten dela onartzetik solaskidearen izaera, beraren hizkuntza eta beraren hitza.

Segitzen eta segituko dugu badakigulako hizkuntza ez dela soilik ideien euskarria, baizik eta ideia bera, eta hizkuntza ukatzen bada, ukatu egiten da hiztuna, ukatzen da pertsona eta ukatzen da izateko eskubidea.

Xede horri jarraituta, Euskal PENek ekimen batzuk burutu ditu urte hauetan:

1. hitzarmena egin du Behatokiarekin hizkuntza-eskubideen eremua jorrazteko.
2. Euskaldunon eskubideen urraketen berri eman du Munduko Hizkuntzen Txostenean eta, baita Hizkuntza Gutxi-tuen lan-taldean ere.
3. kidea da Deklarazio Unibertsalaren segimendurako lantaldean, Quebec, Katalunia eta Uyghur-eko kideekin batera.

Jakitun gara enpresa hau ez dela zati baterakoa. Imajina dezakegun egoeretatik onenean ere oraindik egongo zer konpondu. Ez garelako ari hizkuntza bakar baten egoeraz. Hizkuntzen egoeraz ari gara, hizkuntza guztiek axola digute eta. Eta kontuan hartuta munduan 6.000 hizkuntza badirela, eta gehienak egoera larrian daudela, kalkula dezakegu bizi arteko lana eduki badaukagula, seguru.

Eskerrik asko zuen arretagatik.

*Laura Mintegi*  
Euskal PEN – Basque PEN  
lehendakaria